

KONTROL MOZIOA

DONOSTIAKO MUGIMENDU FEMINISTAK EGITEN DITUEN DEIALDIEKIKO BABESA DELA ETA

Naiara Sampedro Perez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2018ko iraileko Pertsonen Zerbitzu Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Aurtengo uda beltza izan da Donostiako emakumeontzat. Hiriko espazio publikoetan libre bizi eta sentitu beharrean, hirian gertatutako eraso matxisten gorakadak kezkatu eta baldintzatu gaitu.

Egoera honen aurrean, ohikoa bilakatu da, hirian salatutako eraso matxisten aurrean, Udal Gobernuak beharrezko adierazpenak eta elkarretaratze deiak (Udalak eta Foru Aldundiak 12:00etan Alderdi Ederren deitutako kontzentrazioa eta 19.00etan Bulebarrean, hiriko mugimendu feministak deitutako elkarretaratzea) zabaltzea eta herritarrei parte hartzeko deia egitea.

Ez zaigu serioa iruditzen, aldiz, alkateak herritarrak hiriko mugimenduak egiten dituen deialdietan parte hartzerantz animatu eta ondoren, Udal Gobernuak ordezkaririk bakar bat ere bertan ez izatea.

Argi dago, indarkeria matxista arazo estrukturala den aldetik, modu integralean erantzun beharrean gaudela eta horretarako ezinbestekoa dela instituzioa eta hiriko mugimendu feminista elkarlanean aritzea, gaur egun bermatzen ez dena eta azken hilabeteetan ageriago geratzen ari dena.

Ezinbestekoa iruditzen zaigu indarkeria matxistaren aurrean instituzioek eta mugimendu feministak elkarrekin jardutea. Ez da aski herritarrei deialdietan parte hartzeko eskaera egitearekin: Udal Gobernuak mugimendu feministak egiten dituen elkarretaratzeetan parte hartzea bermatzeaz gain, elkarrekin jardun behar dute.

Horiek horrela, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

KONTROL MOZIOA

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari hirian gertatutako eraso matxisten ondorioz hiriko mugimendu feministak deitzen dituen elkarretaratzeetan parte hartzea bermatzea.

2.-Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, hiriko indarkeria matxistari erantzun eta aurre egiteko, abiaraz dezala hiriko mugimendu feministarekin elkarlana.

Donostian, 2018ko irailaren 20an

Naiara Sampedro Perez
EH Bildu udal taldeko zinegotzia